



EDIKTUA, AURRETIAZKO KONTSULTA PUBLIKOA EGITEKO ARGITALPENARI BURUZKOA

Udal honek udal etxebizitza tasatuen Ordenantza arautzailea aldatu nahi du.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 130. artikulua exijitzen du indarrean dauden arauak aldizka berrikustea, erregulazio onaren printzipioetara egokitzeko eta egiaztatzeko ea indarreko arauak zein neurritan lortu dituzten aurreikusitako helburuak, eta ea arau haietan ezarritako kostua eta kargak justifikatuta eta behar bezala kuantifikatuta zeuden.

Udal ordenantzak aldatzeko haiek onartzeko ezarri zen prozedura berbera erabili behar da, Toki-araubidearen arloan indarrean dauden legegaxedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 56. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Era berean, erregelamendu-mailako arauak egiteko prozeduran herritarren parte-hartzea bermatzeko, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan xedatutakoa betez, Ordenantza egin aurretik, aurretiazko kontsulta publiko bat egitea erabaki da, Araudiaren pean egon daitezkeen herritarren eta ordezkartzan handieneko erakundeen iritzia jasotzeko hainbat gairi buruz, hala nola ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak, hura onartzeko beharra eta egokitasuna, arauaren helburuak eta balizko bestelako irtenbide erregulatuak eta ez erregulatuak.

EIBARKO UDALA	AYUNTAMIENTO DE EIBAR	
<p>Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación: 7fcf674e108619498c3391eaddbe5bea9f7480ee Erreferentzia-zenbakia / Nº Referencia: HI9000-000079/2021 Baliozkotze-URLa / URL de validación: https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do</p>		
Sinadura / Firmado por JON IRAOLA (Alkatea / Alcalde)	Data / En fecha 23/03/2021 20:01:14	



Ondorioz, udal etxebizitza tasatuen Ordenantza arautzailea aldatzeko proposamena egin aurretik, kontsulta publikoan jarriko da honako hau:

MEMORIA

Aurrekariak:


Gaur egun indarrean dagoen udal etxebizitza tasatuei buruzko Ordenantza arautzailea duela 12 bat urte onartu zen behin betiko, 2008ko otsailaren 25ean, eta hauxe zuen xede:

- *babes publikoko etxebizitza-tipologia zehatz bat garatzea, babes ofizialeko etxebizitzetarako ezarrita dauden diru-sarrerak baino pixka bat altuagoak dituzten pertsonentzat. Bestalde, babes ofizialeko etxebizitza eskuratu ahal izateko baldintza ekonomiko altuenak betetzen dituen hainbat pertsona ere interesatuta egon daitezke prezio garestixeagoa duen etxebizitza babestu mota bat erosteko, baina nolana ere merkatu libreko etxebizitzak baino askoz merkeago.*

b) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.

Indarrean dagoen Ordenantza higiezinaren burbuilaren eta etxebizitza libreen prezioen gorakadaren goraldi betean onartu zen, eta, dakigun bezala, goraldia hori handik gutxira amaitu zen, finantza-krisiarekin eta higiezinaren merkatuaren jaitsiera orokorrarekin. Horrek guztiaren ondorioz, ordenantzaren testua zaharkituta geratu da alderdi askotan oraingo egoerarekiko.

Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzari buruzko 3/2015 Legea onartzeak, aldaketa erradikalik ez badakar ere, beharrezkoa egiten du Ordenantza legeria berrira egokitzea.

EIBARKO UDALA	AYUNTAMIENTO DE EIBAR	
<p>Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación: 7fcf674e108619498c3391eaddbe5bea9f7480ee Erreferentzia-zenbakia / Nº Referencia: HI9000-000079/2021 Baliozkotze-URLa / URL de validación: https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do</p>		
Sinadura / Firmado por JON IRAOLA (Alkatea / Alcalde)	Data / En fecha 23/03/2021 20:01:14	



c) Ordenantza onartzearen beharra eta komenigarritasuna:

- Beharrezkoa da ordenantzaren edukia eguneratzea, lege-aldaketetara egokitzeko, egungo higiezinaren egoerara egokitzeko eta etxebizitza tasatu gisa kalifikatuta dauden etxebizitzaren kudeaketan sortzen diren arazoak konpontzeko. Horretarako, artikuluko batzuk aldatzeko proposamena prestatuko da.

d) Ordenantzaren helburuak:

- Aldaketa honekin, ordenantza egoera legal eta sozial berrietara egokitu nahi da, eta indarrean dagoen ordenantzan aurreikusi gabeko arazoei erantzun.

e) Egon daitezkeen soluzio erregulatuak eta ez-erregulatuak.

- Ordenantza bat indarrean dagoenez eta etxebizitza mota horiek arautzeko udal ordenantza bat egon behar duenez, ez dago ordezkotze bide ez-arautzailerik.

Hogei eguneko epean (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 83.2 artikulua), ediktu hau udalaren webgunean argitaratu ondoren, hala nahi duten herritarrek, erakundeek eta elkarteek honako posta elektronikoa honen bidez helarazi ahal izango dituzte beren iritziak: **hirigintza@eibar.eus**.


Eibarren, 2021eko martxoaren an

El Alcalde-Presidente / Alkate-Udalburua

EIBARKO UDALA	AYUNTAMIENTO DE EIBAR	
<p>Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación: 7fcf674e108619498c3391eaddbe5bea9f7480ee Erreferentzia-zenbakia / Nº Referencia: HI9000-000079/2021 Baliozkotze-URLa / URL de validación: https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do</p>		
Sinadura / Firmado por JON IRAOLA (Alkatea / Alcalde)	Data / En fecha 23/03/2021 20:01:14	



Jon Iraola Iriondo

EIBARKO UDALA	AYUNTAMIENTO DE EIBAR	
<p>Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación: 7fcf674e108619498c3391eaddbe5bea9f7480ee Erreferentzia-zenbakia / Nº Referencia: HI9000-000079/2021 Baliozkotze-URLa / URL de validación: https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do</p>		
Sinadura / Firmado por	Data / En fecha	
JON IRAOLA (Alkatea / Alcalde)	23/03/2021 20:01:14	